

EAEko IRAKASLEAK

2020ko EPE gainditu dutenak ordezkoen zerrendan sartzea.

Gogoratu izena emateko gaur azken eguna dela. Informazio guztia hurrengo estekan dago: [EPE2020](#)

EPE 2022. IRAKASLEEN MEREZIMENDU-LEHIAKETA

Hurrengo deialdiari buruzko [informazioa](#) argitaratu dute.

- Hurrengo kidegoetan burutuko da: Bigarren Hezkuntza, Hizkuntza Eskola Ofizialak, Musika eta Arte Eszenikoak, Arte Plastiko eta Diseinua, Maisu-Maistrak, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak (desagertzeaz dagoen kidegoa).
- Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoko espezialitateetako plazak ondorengo beste deialdi batean sartuko dira, 2022ko abenduaren 31 baino lehen.

Argibide gehiago jakin bezain laster, jakinaraziko dugu. Dena den, Administrazioak prozesuari buruzko hainbat zalantza eta kexa argitu barik jarraitzen du.

EAEko IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

PREST_GARA IKASTAROAK-2.TXANDA:

Izena emateko epea zabalik dago irailaren 30a arte. Informazio guztia [Hezkuntzaren web orrian](#) dago.

**HEZIKETA BEREZIAN
KUDEAKETA ZUZENA ORAIN!!!**